

# Nolakoa izango da Zumaia 2050ean?

Belaunaldi arteko ariketa kolektibo bat da, etorkizuneko Zumaiaari begira jarriko dena. 14-15 urteko nerabe zumaiairek (DBH3ko ikasle guztiak) jakin nahi dute gurasoengandik nolako Zumaia jasoko duten, zer espero dezaketen, zer arazo, erronka edo aukera izango dituzten aurrean. Gurasoei bideratutako inkesta da hau.

**\*Obligatorio**

## Inkestako galdereen aurretik

-Inkesta hau lagungarri izango zaizu ondoren ikasleek egingo dizuten elkarrizketa prestatzeko, gogoeta egitera bultzatuko zaitulako. Inkesta betetzean sortzen zaizkizun zalantzak edo ideiak ballagarriak izango zaizkizu elkarrizketarako.

-Inkestako emaitzeekin batera, ikasleek gurasoei banaka egingo dizkizueten elkarrizketak argitaratuko ditugu proiektuaren azken emaitza publiko egitean, Baleike.eus webgunean sortuko den txoko berezi batean.

-Galderei erantzuten hasi aurretik zure bizpahiru datu jakin nahi ditugu, estatistikak osatzeko.

Eskerrik asko parte hartzeagatik!

### 1. Adierazi zure generoa: \*

*Marca solo un óvalo.*

- Emakumea  
 Gizona  
 Ez binarioa

### 2. Jatorriz nongoa zara? \*

*Marca solo un óvalo.*

- Zumaian jaiotakoa.  
 Euskal Herrian jaiotakoa.  
 Beste herrialde batean jaiotakoa.

### 3. 2050ean, Zumaiaik zenbat biztanle izango ditu? \*

*Marca solo un óvalo.*

- Gaur egun bezala (10.000 inguru).  
 Gaur egun baino gutxiago.  
 Gaur egun baino gehiago.

### 4. Zahar eta gazteen arteko proportzioa nolakoa izango da? \*

*Marca solo un óvalo.*

- Gaur egun bezala mantenduko da.  
 Proportzioan, gaur egun baino jende edadetu gehiago.  
 Proportzioan, gaur egun baino gazte gehiago.

### 5. Jatorriari dagokionez, nolakoa izango da Zumaia? \*

*Marca solo un óvalo.*

- Inguruko herrietatik jende gehiago etorriko da.  
 Atzeritik jende gehiago etorriko da.  
 Gaur egun bezala mantenduko da.

**Ekonomia**  
AZALPENA: Industria izan da Zumaiaiko ekonomiaren motorea eta oraindik ere hala da. Dena den, azken urteotan beste jarduera batzuk ari dira indarra hartzen, gehinbat turismoarekin eta aisialdiarekin lotutakoak. Bestalde, lehen sektoreak (baserritarrak, arrantza...) oso pisu gutxi du Zumaian, eta ez dirudi indartzeko joerarik duenik. Azkenik, herriko merkataritza garai zailak bizitzten ari da, kontsumo ohiturak aldatzen ari direlako: gero eta gehiago erosten dugu Internet bidez herriko dendetan baino.

### 6. 2050ean, zumaiairrak diruz aberatsago edo pobreaago izango dira? \*

*Marca solo un óvalo.*

- Gaur egun baino aberatsago izango dira.  
 Gaur egun baino pobreaago izango dira.  
 Gaur egun bezala mantenduko da.

### 7. Zertan egingo dute lan zumaiairek? \*

*Marca solo un óvalo.*

- Orain arte bezala, gehienek industrian.  
 Gero eta pisu handiagoa hartuko dute turismoarekin lotutako jarduerak.  
 Askok herritik kanpo alde egin beharko dute lan bila.

### 8. Nolakoa izango da herriko merkataritza? \*

*Marca solo un óvalo.*

- Denda gutxiago egongo dira, Internetetik erosiko dugu ia dena.  
 Indartu egingo dira herriko dendak, bertakoa gehiago baloratuko dugu.  
 Berdin jarraituko du.

**Jasangarritasuna**  
AZALPENA: Mundu mailako erronka da jasagarritasuna, baina zer esan nahi du? Planetak jasan dezakeena baino gehiago ari garela kontsumitzen gure bizimoduarekin eta martxa hau ez dela bideragarria. Hainbat arlotatik azter daitekeen gaia da: esate baterako, energia eta mugikortasuna. Erregai fosilak erabiltzen ditugu gaur egun energia sortzeko, horiek eragiten dute negutegi efektua atmosferan eta, ondorioz, klima aldaketa. Gainera, agortzen ari dira. Haien ordez, iturri berriztagarriak erabiltzen hasi gara, baina nahikoa izango al da? Bestetik, mugitzeko dauzkagun ohiturek ere eragin handia dute energiaren kontsumoan.

### 9. 2050ean, nolakoa izango da herriko energia kontsumoa? \*

*Marca solo un óvalo.*

- Orain bezala, ez dugu asko aurreratuko.  
 Energia berriztagarriak erabiliko ditugu, baina kontsumo maila ez da jaitsiko  
 Energia berriztagarriak erabiliko ditugu eta kontsumo maila jaitsiko dugu.

### 10. Zumaiairrak nola mugituko dira herrian bertan? \*

*Marca solo un óvalo.*

- Orain bezala, kotxez mugitzeko aukera izango dugu.  
 Gero eta kale gehiago izango dira soilik oinezkoentzat.  
 Herria ezingo da kotxez sartu, garraio sistema publiko bat egongo da batera eta bestera joateko.

### 11. Bi esaldi hauetatik aukeratu zure iritzira gehien gerturatzen dena: \*

*Marca solo un óvalo.*

- Zientziari eta aurrerapen teknologikoei esker lortuko dugu arazoei aurre egitea.  
 Gure bizimodua aldatu beharko dugu, ez da munduarentzat jasagarria.

**Klima aldaketa**  
AZALPENA: Klima aldaketa gertatzen ari dela baieztatute mundu osoko zientzialariek eta neurriak hartu beharra dago ondorioak oso kaltegarriak izan ez daitezen. Ondorioetako bat itsasoaren igoeraren maila izango da, eta Zumaiairi modu zuzenean eragingo dio. Beste ondorio bat izango da euri-jasa bortitzagoak izango direla eta, aldi berean, lehorte garai luzeagoak izango ditugula. Urola ibaiaren itsasadarrean bizi garela kontuan hartuta, nola eragingo digu?

### 12. 2050ean, Zumaian jasango al ditugu klima aldaketaren ondorioak? \*

*Marca solo un óvalo.*

- Ez, ez dugu aldaketarik igerriko.  
 Bai, baina arinak izango dira.  
 Bai, ondorio larriak pairatuko ditugu.

### 13. Ondorio posible hauetatik, zein iruditzen zaizu kezkaragarriena? \*

*Marca solo un óvalo.*

- Itsasoaren maila igoetzea, Itzurun desagertzea eta erriok gainezka egitea.  
 Euri gutxiago egitea eta ur falta izatea.  
 Uholdeak areagotzea, euri-jasa bortitzak areagotuko direlako.

### 14. Itsasoaren mailaren igoerari aurre egiteko, zer neurri hobetsiko zenuke? \*

*Marca solo un óvalo.*

- Ez nuke ezer egingo, ez dago arriskurik.  
 Herria babestuko nuke, erriko ertz osoan harresi bat altxata.  
 Errioiari espazio gehiago emango nioke eta herria pixkanaka inguruko mendi kaskoetara mugitu.

**Jendartea**  
AZALPENA: Mundu altdakor honek zer eragin izango du gure herriaren izaeran, ezaugarrietan? Lortuko dugu herri hobeaago bat izatea edo arazoak larriagotu egingo dira? Lortuko dugu gure ohiturak, hizkuntza eta nortasuna mantentzea edo indartzea, edo galdu egingo dira globalizazioaren aurrean?

### 15. 2050ean, nolakoa izango da Zumaiaiko gizartea? \*

*Marca solo un óvalo.*

- Ez da aldatuko, oraingo bertute eta gabeziekin jarraituko du.  
 Desorekak eta ezberdintasunak handitu egingo dira.  
 Gizarte justuagoa eta kohesionatuagoa lortuko dugu.

### 16. Herri nortasuna asko aldatuko al da? \*

*Marca solo un óvalo.*

- Gure ohiturak, hizkuntza eta herri nortasuna mantenduko ditugu.  
 Asko galduko da. Euskararen erabileran ere atzera egingo dugu nabarmen  
 Indartu egingo da, tokian tokiko nortasunak indarra hartuko du globalizazioaren aurrean.

### 17. Hiru esaldi hauetatik aukeratu zure iritzira gehien gerturatzen dena: \*

*Marca solo un óvalo.*

- Bizitzeko leku hobeaerik ez dago, eta ez dut ezer aldatzeko beharrik ikusten.  
 Herriko ekonomia suspertu behar da, aukera guztiak aprobetxatuz, denontzat lana egon dadin.  
 Gure bizimodua aldatu behar dugu, hurrengo belaunaldiek duintasunez bizitzeko aukera izan dezaten.

**Azken galdera**  
Hauxe duzu azken galdera.

### 18. 2050ean, gaur egun baino hobeto edo okerrago biziko dira zumaiairrak? \*

*Marca solo un óvalo.*

- Hobeto.  
 Okerrago.  
 Berdin.